



3 PARTE-HARTZEA

Herriko plaza berriei izena jartzeko kontsulta

Lasarte-Oriako parte-hartze eta kultura sailek Udal erabakietan herritarren parte-hartzea handitze bidean ekimen berria dute martxan, "Jarri izena plaza hauei". Udalak San Pedro eliza ondoko eta Loidi-Barreneko Babes Ofizialeko etxebizitzaren aurreko plaza berriei izena jartzeko galdeketa egin nahi du herritar guztien iritzi jasoz.

4-5 EGOBERRIAK

Amaitu dira ekintzak beteriko aurtengo Gabonak

Santo Tomas egunean hasi eta atzo, Errege egunez amaitu ziren Gabonak. Egonotan gertakari ugari izan ditugu herrian: Gabonetako loteriako 5. saria, Olentzero eta Mari-domingiren bisita, haurrentzako Egoberrietako Haur parkea eta Ur festa, mota desberdinetako kontzertuak eta askoz gehiago. Herritarrek ez dute aspertzeko betarik izan 2012a eta 2013a lotu dituen egun sorta honetan. Gogoan izan Egoberrietako festen argazki galeria guztiak txintxarri.info helbidean dituzuela ikusgai.



Amaitu dira Lasarte-Orian urtero Gabonen jira-biran presoekiko egiten diren elkartzasun ekintzak. Orain, urtarrilaren 12an Bilboko kaleak jendez betetzeko deia luzatu dute.

Presoen hitzak barrote artetik ihesi

Hirugarrenez antolatu du errezitaldi saioa Presoen Lagunak taldeak

Frantzia eta Espainiako espetxeetako harresi guztien gainetik eta sarraila guztien azpitik, herriko euskal preso politikoek igorritako mezu eta poemekin errezitaldia egin zuten ostiral iluntzean hainbat lasarteoriatarrek Manuel Lekuona kultur-etxean.

Sentimendu handiarekin prestatutako ekitaldia izan zen Herrirak eta Presoen Lagunak taldeak ostiralean antolatutakoa. Preso eta iheslarien hitzez osatutako poemak errezitatzeaz gain, herritarrek antzeztu, dantzan egin eta zuzeneko musika ere jo baitzuten Manuel Lekuonako oholza gainean. Ordu eta erdi inguru iraun zuen errezitaldiak eta itxura polita hartu zuen kultur-etxeko areto nagusiak ikusle kopuruari dagokionez. Oholtza gainean, preso senide, lagun eta oro har, adin guztietako herritarrak izan ziren.

Saio trinkoa

Ekitaldi berezia izan zen, bizia. Hasteko, abenduaren 23an Okendo plazan grabatutako Flashmob-aren bideoa proiektatu eta Xumela abesbatzak "Kalera, kalera" abesti ezaguna kantatu zuen publikoaren txalo eta koru artean. Horiez gain, biolin-joleak, Ahuen taldea eta txalapartariak ere aritu ziren.

Jarraian ekin zitzaion Txurdi, Aitzol, Ina, lurgi, Pello, Xanti, Mitxel, Niko, Gallaga, Beltza, Sordo, Topi, Nerbios, Ibon, Juankar eta Rafak igorritako hitzak iraku-

ri, antzeztu edota entzuteari. Besteak beste, Txurdiren poesia, Ibonek haurraren jaiotzaren berri izan zueneko kronika edota Juankarren mezu zorrotz eta kritikoa entzungai izan ziren ikuslego hunkituaren aurrean.

Amaiera ederra izan zuen ekitaldiak. Rafa Diezen semea eta alaba "El Dueso" kartzelatik aitak bidalitako testua irakurtzen ari zirela, lau mimo atera ziren kate luze batean preso argazkien siluetak eskegita zituztela. Pixkanaka,

idatziak aurrera jarraitu ahala, herritarrek argazkiak kendu eta behin katebegietan argazkiri ez zela, mimoek bortiz jaurti zituzten kateak lurrera, karteletako sarraila eta paretak bailiran.

Isiltasun une baten ostean, siluetak kendu zituzten neska-mutilek dantzan egin zuten argazkiak besarkatuta, eta amaitzean, Txapu preso ohiak "agintariarena" dantzan egin ohi den moduan, preso banderola astindu zuen dantzarien buru gainetik.



- Material elektrikoa
- Argiak
- Etxetresna elektrikoak

- TB/HI-FI
- Instalazio elektrikoak

www.electricidadarregui.com

Orain sukaldeko tresneria salgai!



Kale Nagusia 39 • LASARTE-ORIA Tel.: 943 361080 • Tel./Faxa: 943 372521

Adituak dio



Oihana Salazar
Psikologoa

Ajerk bai? Azken bi asteetan gabonetan murgildurik egon arren, gabonen inguruko hizketaldi eta presioaren menpe egon gara azken hilabeteetan. Askotan entzun ditudan hitzak izan dira hauek: "pasata baleude, askoz hobea". Argi dago beraz, gutxiago edo gehiago denoi eragiten digun urte sasoi dela. Hala ere, nabarmen bereziko nituzke umeek eta helduok gabonetan izaten ditugun bizipenak, erabat ezberdinak baitira.

Gabonetan egoteak, eta data hauetan sartzeak, familiarekin dugun kontaktua areagotzen du, eta kontaktu honek zenbaitetan gatazkak sor ditzake. Badirudi, derrigorrezkoa dela zoriotsua izatea garai honetan, baina onartu beharra dugu ez dela beti horrela izaten. Gabonak idealizatuak ditugu, eta ondorioz sentimenduak eta emozioak oropilatatu egin daitezke. Urtean zehar bakoitza bere zurrumbiloi sarturik, gatazkak ezkatatzeko joera izan dezakegu. Gabonek ez dute egoera ezer aldatzen, dagoena plazaratzeko aukera besterik ez dute eskaintzen.

Hau guztia kontuan izanda, askotan umeengan jartzen dugu gabonetako zamarik handiena. Umearen ilusioak ezkata dezake gure gabezia edo Olentzeroren etorrerak arindu dezake afaloste astun bat. Egun bereziak dira hauek umeentzat, gauza polita da ilusioz beterik dagoen haurraren ondoan egotea; bere urduritasuna, zirrara, desioa... zabaltzen ditu eta magia zipriztintzen ditu inguruak.

Pasa dira aurtengoak ere, eta argi geratzen da beste behin festa hauetaz gozatzeak zerikusi handia duela norbanakoarekin; sentimenduekin, emozioekin, ilusioekin, gatazkekin... Bakoitzak ere ezberdinean bizi ditzake, eta ajea ere, horren arabera izango da, noski. URTE BERRI ON!

Asmo berriak

Gabonak pasa dira eta dagoeneko martxa hartu dugu 2013 urte berri honetan. Urtero gauza bera, urte berriarekin batera hamaika asmo eta helburu jarri dizkiogu gure buruari baina betikoa da, ezta? Kirola egingo dugu aurten, azken boladan hartutako kilotox horiek galduko ditugu, dieta osasuntsua jarraituko dugula zin egiten dugu...

Polita da urte hasiera honetan asmo berriak edota helburu berriekin gogoz ekitea eta momentu honetan baikortasun hori altxor bat dela ezin dugu ukatu. Izan ere, gure artean jende asko dago langabezia momentu zailak bizitzen, faktura guztien kostua igotzen da, erosketak egitea ere garestitzen da urte berriaren iritsierarekin batera, ez da erra-

za panorama honen aurrean aurpegi ona jartzea... Baina hala ere, barrutik, ilusiotik eta oztopoak oztopo, gera gaitzen gure urteroko asmo onekin eta hauek gauzatzuz pentsa dezagun urte berria izango dela benetan denontzat hobea.

Lan handia egin beharko da, esfortzu handia eta zenbaitetan oztopoen aurrean kikildu eta gogogabetu egingo gara, baina ilusioa mantendu beharko dugu aurrera egiteko, hurrek egun hauetan erakutsi dutenaren parekoa gutxienez.

Aurretik hamabi hilabete ditugu asmo guzti hauek gauzatzeko, beraz gogotsu aritzea izango da sekretua, inguruko krisi ekonomiko eta bestelakoak baztertzaz ahal den neurrian. Ongi etorriak 2013. urtera eta lor dezagun denon desio, asmo eta nahiak aurtengoan betetzea.

Hitz eta pitz

Gustatzen al zaizu Hiru Erregeen kabalgata?



Aurelia Arias

Betiko ohitura da Hiru Erregeen kabalgata ospatzea. Egia esan, pertsonalki ez zait gehiegi gustatzen, ez dut inoiz jarraitu eta ez naiz askotan joan hau ikustera. Hala ere, suposatzen dut jendeari gustatzen zaiola eta horregatik eta ohitura babes-teko, ospatzen jarraitu behar dela herrian. Gabonak ez zaizkit bereziki gustatzen eta berdina gertatzen zait kabalgatarekin.



Pablo Merino

Ohitura jarraitu behar da eta gustatzen zait herrian Errege Magoen etorrera ospatzea. Haurrei ilusio berezia egiten die eta oso polita izaten da desfilea. Normalean bilobekin joaten naiz ikustera eta gustatzen zait, goxokiak hartzen ditugu, eskutitzak eman. Ohitura polit hauek zaindu behar direla uste dut izan ere, beti ezagutu ditugu eta garrantzitsua iruditzen zait herrian bertan egitea.



Teresa Rodriguez

Nire bilobek nahiago dute Olentzero eta egun hori ospatzen dugu bereziki. Erregeek ez dute etxean oparirik uzten. Hala ere Hiru Erregeak betidanik ezagutu ditugu guk eta gustatzen zait ere herriko kabalgata ikustea. Ohitura da herrian eta oraindik etxe askotan. Iruditzen zait horrelako gauzak mantendu behar direla umeek pozik hartzen dituztelako.



Marcela Barriga

Nire etxean oraindik Hiru Erregeek ekartzen dituzte opariak. Nik beti hauek ezagutu izan ditut eta gustatzen zait ohitura mantentzea. Kabalgata asko gustatzen zait eta ikustera joaten naiz oraindik. Dagoeneko ohitura bat da Hiru Erregeei herrietan ongi etorria egitea eta garrantzitsua iruditzen zait hau mantentzea. Gauza politikak mantendu behar dira.

Iruditan

Errege Magoen bisita



Tomas Fernandez bildumatik aterata, 1958. urteko Errege kabalgata.

Urtero izan dira gure kaleetan barrena Melxor, Gaspar eta Baltasar Hiru Erregeak eta aurten ere herritarrek lagundutako desfilean ikusi genituen. Egun gure artean Olentzerok hartu du protagonismo handia baina zaila da Hiru Erregei euren xarma eta lekua kentzea. Kontuan izan behar da Olentzero ez zegoen garaia bizi zutela belaunaldi askok eta hauentzat nahi eta nahi ez, Hiru Erregeen iritsiera berezia izaten jarraitzen du. Herrian urte asko dira ongi etorria egiten zaiela, irudia 1958ko kabalgatakoa da, Danok Kidek antolatuta hasi zen eta azken eteetan MEGABA elkarteak sustatu du. Parte hartze handiagoa lortzea da azken hauen erronka.

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskara Batzordea



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA



GFAko Kultura eta Euskara Departamendua

HIRIGINTZA



Askatasunaren parkean, haurrek jolasteko bi eremu ezarri dira. Ibai ondoan, 0 eta 3 urte arteko haurrentzako jolasak daude.

Jolas parke berriak erdialdean

Askatasunaren parkean haurrentzako bi jolas eremu jarri dira

Abenduaren 27an, ikusi hala izan genituen beharginak Askatasun parkeko bi eremu desberdinetan haur jolasak muntatzen. Geroztik herriko haurrek bi jolas parke berri dituzte Lasarte-Oriako erdialdean. Udalak jakitera eman duenez, azterketa baten ondorioz erabaki dute parke horiek jartzea. Gainera, herriko beste zenbait parkeetan konpoketak egiten ari da.

Lasarte-Oriako Udalak inbertsioa egingo du herriko haur parkeetan. Askatasun parkean bi eremu berri jarri ditu eta beste auzo-etako parkeak ere konpontzen ari da.

Udalak aditzera eman duenez, Askatasunaren parkean, inguruaren urbanizatze lanetan aritu zen enpresak eginiko segurtasun lurra ipinita zegoen, baina "haur jolasak jartzeko aurreikuspenik ez zegoen".

Gauzak honela, bi gun

horiei erabilpen handiagoa eman nahi izan die Udalak eta adin tarte desberdinetako haur jolasak jarri dira. Erreka ondoan kokatutako gunean 0-3 urte arteko umeentzako jokoak daude eta Udaletxearen ondoan, berriz 3-8 urte artekoak.

Eraberritzea

Era berean, Udalerriko gainontzeko parkeetan jarrita dauden haur jolasen azterketa sakona egin ondoren, Obra eta Zerbitzuen sailak egoera

okerrean zeudenak konpondu edo eraberritu ditu. Honela, Goiegiko urbanizazio, Urko plazako, Txartelako, Arranbideko eta Bitarteko parketan loseta moduko lurra, jarraitasun osoa izango duen zoru berri batez ordezkatuko da.

Honetaz gain, egoera txarrean dauden kulunka eta balantzatxoak ere ordezkatuko direla jakitera eman dute eta Arranbide parkea handitu egingo dutela jolas berriak jarriaz.

Izan ere, Udalak aipatu duenez, "zenbait parke indartzeko saiakera egin da jolasetan elementu berriak sartuz haurren gozamenerako eta beste batzuk kendu egin dira ez zituztelako behar bezain besteko segurtasun neurriak betetzen: "Iturrigoxon bat eta Arranbiden bestea".

INAUTERIAK

Inauterietako bigarren bilera gaur

Lasarte-Oriako Udaleko Gazteria, Kirola eta Jaietako sailak gaur arratsaldeko 18:30ean Inauterietako prestatzeko bigarren bilera egingo du Manuel Lekuona kultur-etxean.

Aurten Inauterietako antolatze herritarren iritzia eta proposamenak jakiteko asmoz, parte-hartze prozesua egingo du Udalak. Lehenengo bileran Inauterietako gaia aukeratu zen, Munduko kulturak. Oraingoan iazko esperientzia aztertu eta egitaraua zehaztuko da.

Gazteria, Kirola eta Jaietako sailak herritarrak eta batez ere, inauterietako konpartsak gonbidatzen ditu bilerara.

ELKARTASUNA

Jostailuen truke bizikleta bat sari

Gabonetan jostailuak jaso zituen herriko PSE-EEK beharra zuten familien artean banatzeko. Azkenean hainbeste jostailu jasota, batzuk Caritasen esku utzi zituen eta beste batzuk berriz, Tinduf-eko kanpamenduetara bideratu. Elkartasun hau nolabait saritzeko, jostailuak eraman zituzten herritarren artean zenbakiak banatu zituzten bizikleta baten zozketan parte hartzeko.

Horrela saritutako zenbakia, Gabonetako loteriako azken bi zenbakiak, 58a izan da eta honen jabe zen Teodora Prieto herritarrak eskuratu du mendi bizikleta. Josu eta Africa bere bilobekin jaso zuen saria Teodora Prietok Jesus Zaballos eta Txus Alonsoren eskutik. Txirringa 16 urteko Josurentzat izango dela azaldu zuen agerraldian.



TXAPELKETA

Tute txapelketa antolatu du PSE-EEK

Tute torneo antolatu dute PSE-EEKo herriko egoitzan urtarrilaren 17an. Bikoteka parte hartuko da eta partidatan zazpi joko batzen dituen bikotea izango da irabazle. Lehenengo eta bigarrenentzat sariak izango dira besteak beste, ardo botilak, sagardo botilak eta gazta edota solomoa.

Izena ematea doakoa da eta urtarrilaren 16a bitartean egin ahal izango dela jakitera eman dute antolatzaileek.

Plazei izena jartzeko kontsulta

Lasarte-Oriako parte-hartze letakultura sailek Udala erabakietan herritarren parte-hartzea handitze bidean ekimen berriak dute martxan, "Jarri izena plaza hauei".

Udalak San Pedro eliza ondoko eta Loidi-Barreneko Babes Ofizialeko etxebizitzaren aurreko plaza berriei izena jartzeko galdeketa da eta herri osoaren eta zehazki herritar bakoitzaren iritzia jaso nahi dute.

Kultura sailak toponimien lanketa egin ondoren plaza bakoitzari izena jartzeko bi aukera proposatu ditu: San Pedro eliza ondoko plazari Elizatze plaza edo San Pedro plaza eta Loidi-Barreneko plazari Hilerrri plaza edo Tximistarreta plaza.



San Pedro eliza ondoko plaza da izendatu behar denetako bat.

Honela, iritzia emateko parte-hartze postontziak edo www.lasarteoriasarean.eu webgunera irabili ahal izango dela jakitera eman du Udalak. Iritzi hauek bildu eta kultura batzordean plazaratuko

dira kontsulta honetatik ateratako emaitzak bi plaza hauek izendatzerakoan kontuan har daitezten.

Iritzia emateko aukera urtarrilaren 27an bukatuko da.

Zinema saioetarako bonoak salgai

Lasarte-Oriako Udaleko Kultura sailak berrikuntza bat dakar aurten, zinema saioetarako bonoak jarri ditu.

Bonoek hamar saioetarako balioa dute eta haurrentzako, zein helduentzako zinema emanaldietarako dira.

Haurren bonoak 25 euro balio ditu. Helduen kasuan, berriz, osteguneko bonoa 35 eurotan dago ekuragarri eta igandekoa, 45 eurotan.

Bono hauek asteleheneetik ostiralera eros daitezke Manuel Lekuona Kultur-etxean arratsaldeko 17:00etatik 20:00etara. Bonoak 2013ko abenduaren 31a baino lehen erabili behar dira.

Sarrerren prezioak

Era berean, zinema sarrerren prezioa igo egin da.

Haurrentzako zinema sarrera 3,60 euro balio ditu orain, helduenak ostegunetan 4,65 euro eta igandeetan, 5,85 euro. Lasarteoriasarean webguneari bidez merkeago eskuratu daitezke sarrera hauek, 3,18 euro haurren saioak eta helduenak 4,24 edo 5,30 euro.

Zozketak

Kultura departamentuak gogora arazten du, zinemarako sarrerak online erostea gaitik hurrengo zine saioetarako sarrerentzat parte hartuko dutela herritarrek.

Honetaz gain, lasarteoriasarean webgunean harpidetuta dauden erabiltzaileen artean ekintzetarako bi sarrera bikoitz zozketatzen jarraituko du kultura sailak.



Dinbi danba batukada, KTG-ko gazteak Amaraun ludotelakako txikiak, Amalur trikiti eta pandero eskola, Jalguene elkarteko lagunak... kalejiran parte hartu zuten.



Landaberri ikastolako haur eta gurasoek, Erketzek eta Albokak kaleak girotu zituzten.



Olentzerorekin batera, Xixuko Mari Domingi eta Porrotxe palazo bihurria izan ziren Lasarte-Orian.

Ederki igaro dira Gabonak

Ekinza ugari izan da egun hauetan gure herrian

Santo Tomas egunean hasi eta atzo amaitu ziren Gabonak. Gabonetako Loteriako 5. saria, Olentzeroren bisita, haurrentzako Eguberrietako Haur parkea eta Ur festa, mota desberdinetako kontzertuak... denetarik izan da egun hauetan gure herrian. Eguberri bezperan, Olentzeroren harrera izan zen ekitaldi jendetsuenetakoa. Baina lehenik goizean eta arratsaldean zehar, herriko kaleak eta inguruetako base-riak girotu zituzten haien

kantuekin, Landaberriko Ikastolako haur eta gurasoek, Zabaleta Auzoko lagunek, Erketzek eta Alboka abesbatzak, besteak beste. **Olentzerori harrera beroa** Honela, Olentzerorekin batera Porrotxe, Mari Domingi eta Xixuko iritsi ziren Lasarte-Oriara. Haur, guraso, Amaraun klubeko, Gazte klubeko eta Kuadrilletegiko lagunak, Jalgueneko lagunak... Dinbi-Banda batukada eta Amalur trikiti eta pandero eskolako

lagunekin batera Loidi-Barren pilotalekua eta Okendo plaza arteko bidea egin zuten. Bertan harrera beroa izan zuten Olentzerok. Alboka abesbatzakoek kantuak, Amalur trikiti eta pandero eskolako lagunak bertsoak, Amaraun Klubeko txikien hitzak eta Jalguene elkarteko lagunak dantza ikusi ahal izan ziren oholtzan. Olentzero ere bertsoetan entzun izan zuten. Jarraian hauren eskitutzak jaso eta hurrengo urtera arte agurtu ziren guztiak.



XX. Jaiotza Lehiaketako sari banaketa egin zen. Danok Kide elkartek jaiotzen lehiaketako sariak banatu zituen Urte Berri egunean. Elkarteko kideek jakin arazi zutenek, 25 jaiotza eta 60 parte-hartzaile izan dira lau maila desberdinetan lehiatzen eta epailek ez dute lan erraza izan. 6 eta 9 urteko gazteetxoan mailan sari nagusia Adrian Serranoren lanak lanak lortu zuten eta bigarren postua, Pablo Garridorentzat izan zen; B mailan, berriz, Jose Manuel Monjeren ikasleek eskuratu zuten saria eta Ane Espinosa, Sara Etxeberria, Irati Martija eta Maria Torresek osatutako taldek bigarren postua; nerabeen mailan ere, Jose Manuel Monjeren ikasleak izan zen garaila eta bigarren Oscar Garrido izan zen. Azkenik, 18 urte baino gehiagoko mailan, Mario Garrido izan zen irabazlea eta bigarren postua Ana Barrearentzat izan zen. Nahiz eta hauek sari nagusiak izan, lehiaketan parte hartu zuten guztiak izan zuten saritoxoren bat.



Gabonetako loteriak 5. sariaren zatitxo bat utzi zuten. Zumaburuko Izkiñ estankoen egokitu zen 22.343 zenbaki sariak. Yolanda eta Maite Razkin Izkiñ estankoko jabeek pozez zorrotzen zuden. Hasieran sinesten ez bazuten ere, kazetarien deiak jasotzean ohartu ziren benetan Gabonetako loteria entzuztuesaren 5. sarietako bat banatu zutela, 6.000 euro denera. Azaldu zutenek, indarra hartzen ari den loteria telematiokoaren sistemaren bidez atera zuten dezimozko zortedunak, eta zorteduna diogu, pertsona bakarrak atera zuelako zenbakia herrian.



Giro ederra San Roken. Ostadarreko mendi sailak eta Txakunen antolatuta hamaitaketa egin zen abenduaren 31ean San Roken urteari amaiera emateko. Bertan herriar asko bildu zen eguraldi ona lagun eta giro ezin hobean igaro zen 2012ko goiza. Herri askotan ohitura da urteari bukaera ematea mendian; Berriain, Adarra, Urkiolamendi, Gorbea... Lasarte-Orian ere ohitura hau sortu nahi da. Horrela Buruntzara igo ostean indarrak hartzeko hamaitaketa izan zen guztiarentzat San Roke basilazaren parean kokatutako aterpean.

Ederki pasa zuten haurrek.

Fuzgarriak, bideojokoak, tailerrak, ludoteka... adin desberdinetako haurrentzat denetarik izan zen Michelin Kirol guneko haur parkean. Baina hauek baino, ipuin-kontalaria, magia ikuskizuna edo dantzialdia izan ziren guztien gozamenaroko. Eguberrietako haur parkeko sarrera eta taberna Langabetuen platformarako zen. Era berean, abenduaren 26an kiroldegian izan zen Ureta festan ere ederki igaro zuten goitza hurbildu ziren gazteok.



Kontzertu paregabeak.

Abenduaren 28an, Oiarzungo Lartaun abesbatzak doinu goxoak eskaini zituen Danok Kide-ren Musika Topaketetako lehen kontzertuan; Mugaldekoak taldearen folk akordeak entzuteko aukera izan zen Jalgi Kafe-antokian; Ramones, The Beatles edota AC/DC talde mitikoen bertsoak entzun ziren Gabba Gabba Hey, Octopus Garden eta AZ/DZ taldeen eskutik Abenden. Eta azken honetan, asteburuan metal gaua izan da.

Preso eta iheslarien alde ekimen ugari. Abenduaren 23an, presoak herriratzeo eskatuz flashmob erraldoia egin zuten Okendo plazan. Guztiara 200 lagun baino gehiago aritu ziren Xabi Solano eta Zigor DZ Esne Beltza taldeko kideek zuzenaren eskaintako doina dantzetan eta kantatzen. Honetaz gain, Eguberri bezperan brindisa egin zuten eta Urte zahar egunean manifestazio jendetsua izan zen herriko kaleetatik barrera.



ZORIONAK TXURDI!



IGERIKETA.-

Buruntzaldea IKT-ko gazteak primeran Hernaniko Sarian

Mutilen errelebuak Sari nagusia eskuratu zuten eta neskak txapeldun orde izan ziren

Buruntzaldea IKT-ko lagunek ez dute atsedunik izan Gabonetan. Abenduaren 22an, Hernaniko Saria eta San Esteban Sarian izan ziren herriko igerilari gazteak eta hainbat domina eta sari ekarri zituzten etxera. Lehengo astean, berriz, Nazioarteko Eguberri txapelketan izan zen eta taldeko bost igerilari izan ziren finaletan lehiatzen.

Neguko denboraldia aurrera doa eta Buruntzaldea IKT-ko igerilariak txapelketaz txapelketa dabilza. Abenduaren 22an, San Esteban Sarian eta Hernaniko sarian parte hartu zuten. Guztiak ederki ibili ziren eta hainbat domina eta sari lortu zituzten. Honetaz gain, abenduaren 29an, Nazioarteko Eguberrietako Txapelketan ere izan ziren helduenak eta final nagusietan egotea lortu zuten igerilarietako batzuk.

Hernaniko saria

Honela, taldeko infantil, junior eta absolutuak Hernaniko XVI. sarian parte hartu zuten.

“Gure igerilariak oso txukun aritu ziren domina ugari lortuz,” aipatu digu Borja Apeztegia entrenatzaileak. Hala nola, 4x50 m. libre erre-

lebutan mutilen taldeak Sariko garaikurra lortu zuen eta neskek, berriz, txapeldun ordearen saria.

Proba indibidualetan ere dominak lortu zituzten. Inigo Ibarburuk 50 m. tximeleta eta 100 m. estiloak proban, Haitz Mitxelenak 100 m. tximeletan, Ainara Garciak 50 m. bular proban, Mikel Esnalek 100 m. libre eta 100 m. estiloak probetan eta Itsaso Tolosak 100 m. libreetan lehenak izan ziren.

Eta zilarrezko dominak lortu zituzten, Mikel Sotok 50 m. bular proban, Kevin Iglesias-ek 100 m. bular proban, Naiara Lizasok 50 m. libre eta 100 m. estiloetan eta Haitz Mitxelenak 100 m. estiloetan.

Honetaz gain, entrenatzaileak jakitera eman duenez, 15 marka personal hobetu zituzten igerilari gazteek eta



Buruntzaldea IKT-ko gazteak Hernaniko sarian eskuratutako dominekin. BURUNTZALDEA IKT

horien artean, aipatzekoak dira, Mikel Sotoren 50 m. bular probako 37''30-ak eta Naiara Lizasoren 1'19''15-ko marka 100 m. estiloetan.

San Esteban Saria

Era berean, taldeko 40 igerilari benjamin eta alebin Oartzunen izan ziren VII. San Esteban Sarian lehiatzen. Apeztegiak adierazi digunez, “guztiak oso pozik ateratu ziren.”

Izan ere, igerilari gazte hauetako batzuk podiumean

izan ziren eta taldeko hainbat errekor berri ezarri zituzten.

Hala nola, urrezko domina lortu zuten Nahia Jie Villamediana 100 m. bizkar proban, Leire Martin 50 m. bular proban, Jon Soto eta Leire Carcedo 100 m. bular proban eta Irati Arzallus 100 m. libreetan.

Bigarren izan ziren Unai G. Somovilla 50 m. tximeletan, Ainhoa Martin 50 m. bizkar proban, Nora Qian Villamediana 50 m. libreetan eta Jon Ibarгойen 100 m. libreetan.

Jon Millan eta Joane Arzallus 50 m. bular proban, Eneko Elizasu eta Anne Izagurre 50 m. libreetan eta Lander Sorozabal 100 m. libreetan hirugarren izan ziren.

Eguberri txapelketa

Bestalde, abenduaren 29an, Nazioarteko XXX. Eguberri txapelketan parte hartu zuten Buruntzaldea IKT-ko gazteak eta primeran egin zuten igeri. Borja Apeztegiak entrenatzen dituen lau igerilari final nagusietan izan ziren.

Itsaso Tolosa 50 m. eta 100 m. bizkar probetan lehiatu zen finalean eta bietan 6. postuan izan zen.

Mikel Esnal, berriz, 50 m. libreetan 5. postuan amaitu zuen. Eta azkenik Haitz Mitxelenak 50. tximeleta probako finalean parte hartu eta 6. postua lortu zuen. Inigo Ibarburuk 100 m. tximeletako finalean izan zen eta 7. postuan amaitu zuen.

Honetaz gain, Tolosak, Esnalek, Mitxelenak, Janire Berasartek, Jone Vazquezek, Naiara Lizasok eta Ainara Garciak marka personalak hobetu zituzten.

PIRAGUISMOA.-

Maialen Chourraut Gipuzkoako kirolaririk onena

Maialen Chourraut herritarrentzat 2012 urte oparoa izan da. Londresen jokaturako Joko Olimpikoetan slalomeko proban brontzezko domina eskuratu zuen, estatuko lehen garaikurra proba honetan. Eta honetaz gain, ezin dira ahaztu Munduko Kopan lortutako garaipenak ere.

Horregatik bai Gipuzkoako Foru Aldundiak, baita kirol prentsa elkarteak ere 2012 urteko Gipuzkoako Kirolari onenaren saria eman diote.

Aho batez

Gipuzkoako Foru Aldundiak abenduaren 20ean Miramonen egindako ekitaldian eman zion saria Maialeni.

Honetan, Aldundiak kirolari olimpikoak, paralinpikoak eta Europa eta mundu mailan emaitza garrantzitsuak lortu zituztenak omendu eta saritu zituzten.



Maialen Chourraut kirol prentsa elkarteak emandako saria jasotzen. DV JOSE MARI LOPEZ

Herritarrek, federazioek eta Aldundian eraturako epaimahaiak erabakitako saria da hau eta aurten guztiak bat egin dute Lasarte-Oriako palistaren alde.

Kirol prentsa elkarteak

Bestalde, abenduaren 27an,

kirol prentsa elkarteak saritu zuen herritarra Hotal Amara plazan antolatutako ekitaldian.

Jakitera eman zuten, bozka gutxigatik irabazi zuen saria Chourrautek. Bigarren postuan Txema Olazabal izan zen.

ATLETISMOA.-



Endika Gartzia eta Raul Gomez herritarrek Zizurkilgo gau krosean.

FESTAK.COM

Hainbat herritar San Silbestre lasterketetan

Urteari amaiera emateko hainbat herritarrek Gipuzkoa osoan zehar egiten diren San Silbestre lasterketetan parte hartu zuten. Hala nola, Donostian, Beasainen, Ordizian edo Hondarribian izan ziren lasarteoriarrak korrika.

Beasainen marokiarrak izan ziren nagusi. Baina 358 partehartzaileen artean 8 herritar izan ziren 9 kilometrotako lasterka honetan.

Azkarrena Endika Gartzia izan zen, 28:52. Hamalagurren postuan iritsi zen helmugara marokiar eta etiopiarren ostean.

Donostian, berriz, 3000 bat korrikalari izan ziren hiriburuan zehar egiten diren 8,4 kilometrotako lasterketan.

Lasarte-Oriak izan zuen ordezkaritza, 51 herritar izan ziren bertan eta Jose Luis Delgado zortzigarren postuan amaitu zuen lasterketa, 28:09 marka eginez..

Zizurkilgo gau krosa

Bestalde, abenduaren 15ean, Endika Gartzia herritarra Zizurkilgo gau krosek irabazi izan zen, 22:29 eta Raul Gomez herritarra laugarren izan zen.

Agenda

Osteguna 10 eta igandea 13, Manuel Lekuona kultur-etxea



Presoen erretratuak

Okendo Zinema taldea, Euskal Presoen lagunak taldea eta Herriraren eskutik, "Barrura begiratzeko leihoak" film dokumentalal eskainiko dute. Honetan, bost zinegilek Josu Martinez, Txaber Larreategi, Mireia Gabilondo, Enara Goikoe-txea eta Eneko Olasagasti bost euskal presoren bizitza azaltzen dute. Sarrerak ostegunean leihatilan, 4,65 euro; internetez, 4,24 euro; igandean, beriz, leihatilan, 5,85 euro; internetez, 5,30 euro.

Andoain

Musika

BASTERO KULTURGUNEA

Ostirala 11, 21:30ean

Elliott Murphy-ren kontzertua. Olivier Durand gitarristaren eta The Normandy All Star Band taldearen laguntza izango du. Sarrera, 15 euro.

Astigarraga

Antzerkia

KULTUR-ETXEA

Larunbata 12, 20:00etan

"Su Txikitan" antzerkia eskainiko du Glu-Glu antzerki taldeak. Sarrerak leihatilan, 6 euro; internet bidez, 6,50 euro.

Igandea 13, 17:30ean

Haurrentzako antzerkia, Txalo produktioak "Jon Beldurgarria" antzezlanaren aurkeztuko du. Sarrera leihatilan, 2,50 euro; internet bidez, 2,70 euro.

Lasarte-Oria

Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Igandea 13, 17:00etan

Haurren zinea atalean, "Rompe Ralph" filma ikusgai izango da. Sarrera, leihatilan 3,60 euro; internet bidez, 3,18 euro. Gaztelaniaz.



Osteguna 24, 21:30ean

Ostegun zinea atalaren barruan, "Le Skylab" film frantsesa, Okendo Zinema taldearen eskutik. Sarrerak leihatilan, 4,65 euro; internetez, 4,24 euro. Gaztelaniaz.

Igandea 27, 17:00etan

Haurren zinea atalean, "Asterix al servicio de su majestad" filma ikusgai izango da. Sarrera, leihatilan 3,60 euro; internet bidez, 3,18 euro. Gaztelaniaz.

Igandea 27, 19:30ean

Helduen zinea atalaren barruan, "Le Skylab" film frantsesa, Okendo Zinema taldearen eskutik. Sarrerak leihatilan,

5,85 euro; internetez, 5,30 euro. Gaztelaniaz.

Antzerkia

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Larunbata 26, 18:00etan

Haurrentzako "Ali Baba eta 40 lapurrak" antzezlanaren izango da, Borobil antzerki taldearen eskutik. Sarrera, leihatilan 3,70 euro; internet bidez, 3,24 euro.



Ipuin Kontalaria

UDAL LIBURUTEGIA

Osteguna 10, 17:45etik aurrera

Lur Kortak "Amets gaizto nire armairuan" ipuina kontatuko die lehenik, 3-5 urte bitarteko haurrei eta 18:15ean, 6-9 urteko gaztetxoek.

Usurbil

Zinea

SUTEGI AUDITORIOA

Ostirala 11, 19:30ean

Otxoa de Olzari buruzko film emanaldia antolatuko du Andatza Mendizale Elkarteak.

Herritarren txokoa

Elizegi familiaren eskertza

Ezekiel Elizegi Garmendiaren familiak eskerrak eman nahi dizkie modu batera edo bestera haien ondoan izan diren guztiei eta baita elizkizunetara joan ziren guztiei ere. Eskerrik asko guztiagatik!

Biyak Bateko kuota

Biyak Bat Erretiratuen elkarteak bere

bazkideei jakin arazten die urteroko kuota, 8 euro, gaurtik martxo amaiera arte ordaindu ahalko dela egoitzako bulegoan goizeko 10:30etik 12:30era.

Era berean, hiru hilabete hauetan, 2011 eta 2012 urteko bazkidetza ordaintzen ez dutenei baja emango zaiela jakitera ematen du elkarteak.

85 urtetik gorako bazkideek ez dute ordainketarik egin behar.

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko: Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info



Olentzeroren harrera, Santo Tomas azoka edo Errege Magoen kabalgatako argazki eta bideo galeriak ikusgai daude txintxarri.info web orrialdean. Jarrai gaitzazu ere [facebook](https://www.facebook.com/txintxarri) eta [twitter](https://twitter.com/txintxarri) kontuetan.

Hemeroteka

Duela 1040 ale



1995eko lehen zenbakian asteazkenero gure herrian egiten den azokari buruzko erreportajea argitaratu genuen. Orduan, Zumaburuko Isla plazan jartzen zituzten postuak, guztira 122 ziren eta denetarik aurki zenezakeen.

Gauzak honela, erreportajearen saltzaileek dituzten zailtasun eta oztopok azaltzen ziren eta hiru saltzaileen iritzia ere jasotzen zen.

Saltzaileek erreportajearen azaldutakoaren arabera, gure herrian postua lortzea beste herrietan baino zailagoa zen eta garestiagoa gainera. Testuan azaltzen denaren arabera, "saltzen duten produktuaren eta postuaren neurraren arabera ordaindu behar dute".

Eta merkatu egunetan haiek eta herritarrek zituzten aparkatzeko arazok ere aipatzen dira. "Goizeko bostetan edo lehenago etortzen gara, aparkaleku ona hartu eta zazpitan merkatua irekitzen dutenerako prest egoteko. Kriston istiluak sortzen dira sartzeko eta atertzeko orduan", adierazten zuten saltzaileek.

Era berean, saltzaileek postu fijoak lortzeko jarraitu beharreko pausok azaltzen ziren.



Okendon amaitu zuten ibilbidea Hiru Errege Magoek, Oriatik abiatu eta herriko kale nagusiak zeharkatu ostean.



“Erregeak datoz, Erregeak!”

Jendetza bildu zen Hiru Errege Magoei harrera egiteko

Ekintzaz beteriko eguna izan zen urtarrilaren 5a Errege Magoentzat. Goizean goiz, Atsobakarreko zaharren egoitzara joan ziren herriko adinduak bisitatu eta opariak zein musuak banatzera. Egur-dian pajeak bidali zituzten Okendo plazara haurren gutun eta marrazkien bila eta bertan, MEGABA elkarteak antolatutako marrazki lehiaketako sariak banatu zitzaizkien Pablo eta Ander Garrido anaia irabazleei. Arratsaldean herriko kaleak zeharkatu zituen kabalgata egin zuten Erregeek eta egun neketsua amaitzeko, etxez etxe ibili ziren opariak eta ilusioa lau haizetara banatuz.

Poz handiz bizi ohi dute Errege bezpera eguna herriko gaztetxoenek, baina helduenek ere modu

berezian gogoratu eta maitatzen dute Errege kabalgata, txikitako oroitzenetara atzera-jauzia egiteko aukera

ematen baitie.

MEGABA elkarteak hartu du kabalgata antolatzeko ardura eta jendearen erantzuna primerakoa izan da. Urtero bezala borrokan aritu ziren herritarrek karamelu gehien nor hartuko eta antortxeroek urteroko ukitu mistikoa eman zioten arratsalde magikoari.

Ibilbideari dagokionez, Oriatik atera eta Zumaburuko zaharren egoitzan eta Brijidatarren komentuan geldialdixoa egin ostean, Okendon bi eskutitz irakurri zituzten udal-etxe bakoititik jendez gainezka zegoen plazaren aurrean.



Hiru Errege Magoek ikusmira handia sortu zuten Kale Nagusian barrena goxokiak botatzean, Okendo ere gainezka zegoen.

Garrido anaia, marrazki tailerrak, Atsobakarren bisitan, Brijidatarren komentuan...

2012 **Bikam**
collaboración
 con el Ayuntamiento
 de San Pedro de
 Galdakao

INFORMAZIO JARDUNALDIA LASARTEN

Q
 2011



**LARRAMENDI
 IKASTETXEA**

Urtarrilaren 15 – 18:30
San Pedro Parrokiaren
aretoan

1etik 18 urte arte / de 1 a 18 años

www.larramendi.com